

Izarraitz aldean jaso eta bildutako ipuinak gaur Liburutegian

Gaur, Nazioarteko Haur eta Gazte liburuaren eguna delako; liburutegian, arratsaldeko 6etan, Gurutz Garmendia Osinalde azkoitiarrak; Izarraitz aldean jaso eta bildutako ipuinak kontatuko ditu. "Gaur egun ume eta helduentzako ipuin erara kontatuko ditugun kontakizun eta pasadizo hauek garai bateko sinismen zaharrak dira. Telebista edo Internet ez zegoenean, jakinduriaren iturri eta transmititzaile ziren nahiz eta orain mitologia eta ipuin bihurtu" zioen ipuin kontalari azkoitiarrak. Ipuin, kondaira, kontakizun eta pasadizo hauek "Basoko Damaren ipuin sorta" deitzen den liburuxkan jasoak izan dira.